



EUSKAL KOSTALDEKO MUSEOEN SAREAREN INSTAGRAM LEHIAKETA. 2019ko MARTXOA

TESTUINGURUA

Lehiaketa hau Euskal Kostaldeko Museoen Sarearen “Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetearen VII.edizioa”-ren testuinguruan ospatzen da. Informazio gehiago: <http://www.losmuseosdelacostavasca.eus/programa-actividades/?lang=EU>

SUSTATZAILEA

Lehiaketa hau EUSKAL KOSTALDEKO MUSEOEN SAREAK (hemendik aurrera, SAREA) antolatu du, bere kide guztiek arautegi honen amaieran aipatzen direlarik. Helburua jarraitzaileen artean argazki eta bideo lehiaketa bat antolatzea da, Instagram sare sozialaren bidez. Bertan, oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko guztiek har dezakete parte. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta SAREAK oinarriei buruz har ditzakeen erabakiak onartzen direla esan nahi du.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Instagram aplikazioa duten erabiltzaile adindun guztiek har dezakete parte lehiaketan; dena dela, sare sozial horretako baldintzak errespetatu beharko dituzte (<http://instagram.com/legal/terms/>). Gainera, parte-hartzea baliozkoa izateko, lehiakidearen profilak publikoa izan behar du.

LEHIAKETAREN IRAUNALDIA

Lehiaketa 2019ko martxoaren 1eko 00:00etatik (bertako ordua) 2019ko martxoaren 31ko 23:59ak arte (bertako ordua) egongo da indarrean. Epe horretan partekatutako argazkiek hartuko dute parte. Ez dira onartuko epe horretatik kanpo jasotako argazkiak.

FUNTZIONAMENDUA

Gaia “Euskal Kostaldeko Museoak eta berauen hilabeteko jardueren eskaintza” izango da; sareko erabiltzaileek gure jarduera eta museoetako txoko gustukoenei buruzko irudiak partekatu beharko dituzte, eta #euskalkostamuseoaklehiaketa traola gehitu beharko dute argazkien oinean. Era berean, @neatur_euskadi profilaren jarraitzaile izan beharko dute.

Erabiltzaile bakoitzak nahi beste argazki partekatu ahal izango ditu lehiaketaren epearen barruan, baina lehiaketaren gaiari eutsi beharko diote. Instagramen argitaratutako irudiak bakarrik onartuko dira, eta ondo etiketatuta egon beharko dute. Horrez gain, sustatzailearen iritziz edukia desegokia, ez-onargarria edo iraingarria bada, ez du lehiaketan parte hartuko.

“Atsegin dut” eta iruzkin asko dituzten argazkiek ez dute irabazteko aukera handiagorik izango. Euskal Kostaldeko Museoen Sareko kidez osatutako epaimahaiak argazki irabazle bat aukeratuko du. Besteak beste, kalitatea, sormena, originaltasuna, betearazpen artistikoa eta proposatutako gaiari nola eutsi zaion baloratuko dute. Epaimahaiaren epaia SAREaren sare sozialen bidez iragarriko da 2019ko apirilaren 12an. Lehiaketak ez du irabazlerik izango, epaimahaiak hala erabakiz gero.

IRABAZLEEN KOMUNIKAZIOA

Sustatzailea harremanetan jarriko da irabazlearekin Instagram bidez; horretarako, iruzkin bat utziko dute irabazlearen kontuan, edo/eta beraiek egoki iritzitako bidea jarraituko dute. 24 orduren ostean ezin izan badira harremanetan jarri irabazleekin, sustatzailea erantzukizunetatik salbuetsita egongo da, eta beste irabazle bat aukeratu ahal izango du.

SARIA

Argazki garailearentzako saria Nekatur, Euskadiko Nekazalturimo eta Landa-etxeen elkartearen “Bono orlegi” bat izango da.

SARIAREN BALDINTZAK

Nekazalturismo Elkarteak “Bono orlegi” bat eskeintzen du eta hauexek dira baldintzak:

- Bonuak 2 pertsonentzako bi gaueko egonaldi bat logela eta gosariekin edo apartamentu batetan da eta bertan atxikituta dauden ostatuetan soilik trukatu ahal izango da.
- Egonaldiak 2 gauetakoak dira (2 gauak jarraian eta ostatu berdinean izan behar dute).
- Bonua ezingo dira goi denboraldian erabili: zubia eta jaiegunak, Aste Santua (aste osoa), udara (uztailaren 1etik abuztuak 31era), gabonak (abenduak 20tik urtarrilak 10era).
- Egonaldia asteburuan zein astean zehar izan daiteke.
- Ezinbestekoa da BETI erreserba Nekaturren bitartez egitea 00.34.943.32.70.90 telefono zenbakira deituaz.
- Bonuan Nekaturreko nekabonuen balditza orokorrak aplikatzen dira. www.nekatur.net/oparibonua.

Sariak ezin izango dira esku-diruarekin trukatu. Sari-banaketa SAREko Museo baten izango da, zeina garailearekin iragarriko dena. Sustatzaileak ez ditu bere gain hartuko sari-banaketak eragindako gastuak.

IZAERA PERTSONALEKO DATU-BABESA

Lehiaketan parte hartzean, erabiltzaileek onartu egiten dute sare honetan argitaratuko diren edukiak eta iruzkinak Instagrameko eta beste sare sozial batzuetako

erabiltzaileekin partekatu daitezkeela. Datu pertsonalak ez dira inongo fitxategitan gordeko, eta lehiaketaren parte-hartzea kudeatzeko bakarrik erabiliko dira.

IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaile bakoitzak adierazten du lehiaketan aurkeztutako material ororen irudi eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak dituela. Sariak edo erakusketan parte hartzea onartzean, sustatzaileak eskubidea izango du parte-hartzailearen izena, irudia, argazkiak eta bideoa erabiltzeko, kanpaina honekin erlazionatutako materiala sustatzeko asmoz, egoki irizten badio.

ERANTZUKIZUNAK

Sustatzaileak eskubidea du edozein parte-hartze edo partaide kanporatzeko, datuak edo lehiaketa bera manipulatu delako susmoak baldin baditu. Sustatzaileak eskubidea du lehiaketaren oinarriak edozein unetan aldatzeko, baita aurreikusitako epea baino lehen bertan behera uzteko ere; hala ere, justifikatuta egon beharko du. Gainera, oinarri berriak, lehiaketaren baldintza berriak edo lehiaketa behin betiko bertan behera utzi izana aurretiaz komunikatu beharko du.

Sustatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango Instagramek edo Internetek gaizki funtzionatzen badute edo posta elektronikoarekin arazoak badaude.

Sustatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango, segurtasun-neurriak hartu arren, erabiltzaileek zerbitzuak eta edukiak oker erabiltzearen ondorioz sortutako kalteengatik. Bereziki, ez du inolako erantzukizunik izango, egindako edozein jakinarazpenetan hirugarren batek, iruzur eginda, parte-hartzaile baten lekua hartuta egindako kalteengatik.

DEBEKUAK

Honako hauek ezin izango dute parte hartu lehiaketan:

- Enpresa sustatzaileko edo lehiaketarekin erlazionatutako enpresa kolaboratzaileetako langileak.
- Aurreko puntuaren barruan dauden pertsonen senide zuzenek eta ezkontideek.

ARAZOEN EBAZPENA

Akordioari buruzko edozein arazo agertuz gero, bi aldeek berariaz uko egiten diote dagokien foruari, eta Bilboko edo Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio eta eskumenpean geratzen dira.